KALAPUTXI

Mutrikuko
herri-aldizkarixa
2009ko iraila
87. zenb.



narkis

ANDONEGI

kresalak
zaildutako
bizitza

SAN PEDRO EGUNA ARGAZKITAN
AUZOZ AUZO, JAIRIK JAI
SORGIN ERREKA ESKALADA ELKARTEA SORTU DA
ANDREAS HESS-EN LANA, MUTRIKU OINARRI HARTUTA

artizar

fisio lan taldea

San Agustin, 10 behea MUTRIKU

943 603 655

masajeak baino askoz ere gehiago

I AM
TÚ ERES
... هي
GU GARA
VOUS ÊTES
ELES SÃO

Elkar ulertzeko, euskara.

PARA ENTENDERNOS MUTUAMENTE, EUSKERA
TO UNDERSTAND EACH OTHER, EUSKERA
لكي نتفاهم فيما بيننا، استعمل اللغة الباسكية
POUR NOUS COMPRENDRE MUTUELLEMENT, EUSKERA
PARA COMPREENDER-NOS, EUSKERA

UDAL
EUSKALTEGIAK

EUSKararen
IRAKASLEntzarako
ENTITATE OFIZIALA

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA

2009-2010 ikasturtea

Ikastaroak
Aurrez aurrekoak
Autoikaskuntza (BOGA)
Mistoak

Ikastaro bereziak
Enpresak
AISA (etorri berriak)
Merkatariak, ostalaritza...

Euskara

Azterketetarako prestaketa
Perfilak (Osakidetza, Hezkuntza, IVAP, Justizia...)
HABEren 1., 2., 3. eta 4. mailak
EGA

16 urtetik gorakoentzat • diru-laguntzak-bekak

Sabanika aldapa, 4 · 20830 Mutriku
943 60 30 94 · eusk.mutriku@udal.gipuzkoa.net

Kalaputxi hilabetekarixa

Argitaratzailea:
Karenka komunikazio elkartea
Barrenkale 12, behea
20830 MUTRIKU

Telefonoa: 943 603468 / 635 748 393
e-maila: kalaputxi@topagunea.com
Laguntzailea: Mutrikuko Udala
Tirada: 2.200 ale
Lege Gordailua: SS-787/01
ISSN: 1579-4792
Inprimategia: GERTU. Oñati.
Banaketa: Mutrikuko Institutuko azken mailako ikasleak

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Kalaputxik eskerrak ematen dizkizue aldizkari hau kaleratzea posible egin duzuen guztioi

Mutrikuko Udaleko Euskara Batzordeak diruz lagundutakoa

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutakoa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagundutakoa

aurkibidia

Informaziua 4
Zeuk esan *Irakurleen eskutitzak* 5-6
Bi hitzetan eta komikixa 7-8
Auzoz auzo *Jairik jai: San Nikolas, San Jeronimo, Kalbaixo* 9-10
Elkartasuna *Hondurasko proiektuak* 11
Karenka *Narkis Andonegiri elkarrizketa* 12-13
Posterra *San pedro bezperako Itxas eguna argazkitan* 14-15
Kirola Sorgin Erreka *mendi kirol elkartea* 16-17
Gizartia *Andreas Hess-en azterlana eta Mutriku* 18-19
Bertsuak *Bertso sariketak 25 urte* 20-21
Kulturia *Kanta zaharrak Mutrikun* 22-23
Zorion agurrak 24
Argazki zaharrak *Kalabaixuak eta kurtso hasieria* 25
Agendia *iraila-urria* 26

IRITZIA

MENDE LAURDEN BAT BERTSOTAN

Urteurren handiaren baitan, badira beste batzuk, beren txikian, ospatzeko nahikoa motibo ematen dizkigutenak. Mutrikuko bertsopaper lehiaketa da horietako bat, 1985ean martxan jarri eta urtero-urtero hutsik egin gabe antolatu dena, aurtengo 25. ekitaldira iritsi arte.

Baina jakineko kontua izango duzu hori, pasa den urtarriletik hasita urtez-urteko sorta irabazleak ekarri baititu bere orrietara *Kalaputxi*k. Dosi txikitan, hilero sorta bat edo bi, egileen hitzaurre eta guzti. Horiek irakurri eta bere egarria ase ez duenak hor ditu urtero argitaratutako liburuxkak. Sariketara aurkeztu diren bertso guztiak daude liburuetan jasoak. Bertso eskolan sorta osoa daukagu, irakurri nahi duenaren eskura.

Mende laurden bat bertsotan jasoa. Horra hor herriko historia eta istorioen bilduma errimatua. Unean uneko gertaeren, kezken adierazgarri dira batzuk: herriko obrak, pasadizoak, arrantzaleen egoera, udaleko kontuak... beste gai batzuk orokorragoak dira, urteak joan eta urteak etorri errepikatzen direnak: maitasuna, heriotza, zahartzaroa... bizitzako kontu sakonak eta eguneroko gertaera arinak, bietatik topa liteke bertsootan.

Tamalez bertsopaperak gainbeheran daude gurean. Baditugu bertso jartzaile onak, bai, baina orokorrean herritarron partehartzea ikaragarri jaitsi da. Garai batean sariketak hainbat pertsona jartzen zituen martxan udazken bueltan, baina gaur ez da horrelako konturik. Argitaratu ondorenean ere ez dute lehen adinako oihartzunik lortzen, nahiz eta maila bikaineko sortak idazten diren.

Bai, garaiak aldatuz doaz. Funtzio eta espazio berriak aurkitu beharrean gara bertso idatzien esparru zaharrarentzat. Garaietara egokitu. Nola egin behar dugun, horixe ez dakidana. Zuei luzatzen dizuet galdera, proposamen eta ideia berriak gustora jasoko genituzke.

Bitartean, irakurri ditzazuela patxadan eta gustora orain artekoak, eta idatzi! Idatzi beldurrik gabe garaiz gabiltza oraindik eta aurtengo sariketan parte hartzeko.

Aitzol Astigarraga

intereseko telefonoak

OSASUNA

Anbulatorioa (Osakidetza).....943 60 43 00
DYA zentrala.....943 46 46 22
Mendaroko ospitala.....943 03 28 00
Odol emaleen taldea.....943 60 39 30
Javier Otxagabia botika.....943 19 50 26
Lon Apraiz botika.....943 60 32 50
Larrialdiak 943 46 11 11

ADMINISTRAZIO BULEGOAK

Udaltzaingua.....943 60 70 48
.....679 16 25 00
Udaletxea.....943 60 32 44
Turismo bulegoa 943 60 33 78
Posta zerbitzua 943 60 30 44
Bake Epaitegia 943 60 70 49
Itsas etxea.....943 60 34 00
Ur patzuergoa.....902 30 22 22
Mankomunitatea (trasteak eta zaborrak)
.....943 70 07 99
Alde Zaharra eraberritzeko zerbitzua..943 60 34 18

IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA

Goizeko Izarra ikastola.....943 60 36 75
San Miguel ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko Institutua 943 60 36 27
Udal euskaltegia 943 60 30 94
Musika eskola.....943 60 37 80
Haur eskola publikoa 943 60 41 19

GIZARTE ONGIZATEA

Gizarte Ongizate zerbitzua.....943 19 50 81
Anai Arte jubilatuen egoitza 943 60 34 10
Mikel Deuna zaharren egoitza.....943 60 38 71

ZERBITZUAK

Pesa.....902 10 12 10
Eusko Trenbideak 902 54 32 10
Loiuko aireportua.....905 50 50 05
Hondarribiako aireportua 943 19 23 47

BESTE BATZUK

Liburutegia.....943 60 41 82
Kiroldegia 943 60 31 75
Gasolindegia 943 60 32 10
Miruaitz Frontoia 943 60 46 79

Autobusak

MUTRIKU – DONOSTIA – MUTRIKU

Mutrikutik
Astegunak 7:00 / 10:00 / 13:30 / 19:30
Zapatuak 10:00 / 16:30
Jai egunak 10:00 / 19:30

Donostiatik
Astegunak 8:00 / 11:30 / 14:30 / 20:30
Zapatuak 11:30 / 19:30
Jai egunak 11:30 / 20:30

MUTRIKU – BILBO – MUTRIKU

1. BIZKAIBUSen autobusa hartu Ondarroan:

> **6:10**ean hasi eta 20:10 arte, orduro. > **6:40**an hasi eta 19:40 arte, orduro.

2. PESAren autobusa hartu Eibarren, haraino Euskotrenen

DEBARA eta Debabarreneko herrietara

Astegunetan: **7:15**etik 21:15era orduro / **Jai egunetan**: **8:15**etik 21:15era, orduro

ONDARROARA

Astegunetan: **6:55**etik 20:55era, orduro / **Jai egunetan**: **7:55**etik 20:55era, orduro

Trenak

Tren guztiak, adierazitako lehenengo ordutik aurrera, **ORDURO**

DEBA – DONOSTIA – DEBA

Debatik 6:44-7:44-…-21:44
Donostiatik 5:47-6:47-…-20:47
Jai egunetan 8:44etan hasiko dira

DEBA – BILBO – DEBA

Debatik 6:43 -7:43 -…-20:43
Bilbotik 6:00 -7:00 -…-20:00
Jai egunetan 8:43etan hasiko dira

DEBA – EIBAR – DEBA

Debatik 6:43 / 7:43 / … / 21:43
Eibartik 6:13 / 7:13 / … / 21:13

Jai egunetan, 8:43etan hasiko da
Jai egunetan, 8:13etan hasiko da

Zaintzako botikak (Mutriku eta Deba)

IRAILA	
25etik 27ra	Amaia Zalduegi (zapatu goizean, Lon Apraiz)
28tik 30era	Lon Apraiz

URRIA	
1ean	Lon Apraiz
2tik 4ra	Javier Otxagabia
5etik 8ra	Amaia Zalduegi
9tik 11ra	M. Cristina Riveiro (zapatu goizean, J. Otxagabia)
12tik 15era	Javier Otxagabia
16tik 18ra	Lon Apraiz
19tik 22ra	M. Cristina Riveiro
23tik 25era	Amaia Zalduegi (zapatu goizean, Lon Apraiz)
26tik 29ra	Lon Apraiz
30ean eta 31n	Javier Otxagabia

APRAIZ.....630 05 50 97 ZALDUEGI.....669 26 22 01
OTXAGABIA..689 58 57 59 RIVEIRO..... 667 33 88 90

MUTRIKUKO MERKATU PLAZAKO ZABORTEGIA (Nahikoa da!)

Mutrikuko merkatu plaza aurrean jarri ziren bi kontenedoreen inguruan sarritan pilatzen den zaborraren arazoa berehala konpondu behar da! Onartezina da merkatu plaza, haurren ludoteka, "Hogar del Marinero" elkartea, "Anaiarte" biltoki-taberna, Beheko Plaza eta haibat etxebizitza dauden bazter horretan ikusten dena:

- Era guztietako zaborrak (egurrak, burdinak, kartoiak, beirak, plastikoak, jakiak, altzari zaharrak,…): denak nahastuta, banatu gabe.

- Bi kontenedoreak bete-beteta eta zaborrak aipaturiko kontenedoreetatik kanpo, sakabanatuta.

- Usain txarra, kiratsa, "antza".

Itxura txarra, zatarra, emateaz gain, Beheko Plaza inguruan bizi eta ibiltzen garen herritarron osasuna kaltetzen ari den arazo hau berehala zuzendu behar dute, egoera jasanezin honen erantzule diren Amankomunazgo eta Udaletxeko arduradunek.

Ez dago aitzakirik! Nahikoa da!
(2009ko uztaila)

Martin Ruiz Larreina

BABES DIKEA: SEGURTASUNA ETA ETORKIZUNA

Azken 100 urte luzeetan herriak gehien eskatu duen egitasmoa kanpoko Dikea izan da. Kanpoko Dikearen beharra herriko eremu eta instituzio guztietan beti eta etengabean eskatu da. Herria batuta egonda eskaera honen atzetik eta guztiok borrokatu dugu urteetan honen alde.

Segurtasuna izan da nahi nagusia. Heriotzak, susto galantak, itsaso handirik gabe ere hainbat pertsonaren barru guztia hartuta, txalupak arriskuan, inguruko etxeetakoak ere urduri eta beldurrez…Eta hau dena zenbat aldiz eta zenbat urtetan…!

Mutrikuko portura etortzen ziren kanpoko txalupak ere, poliki–poliki beste portuetara joaten hasi ziren, hain zen gogorra gure portuaren sarrera. Bidegabekeria eta burugabekeria hutsa zen portura sartzea denboralea zen egunetan.

Oraintsu arte Instituzio guztiek bizkarra eman diote Mutrikuren nahi nagusiari. Azkenean, hainbat borrokaren ondoren, herriak bere helburua lortu zuen: Babes Dikea hastera doaz!

Batzuk ez zuten sinistu ere egiten, baina bai, Babes Dikerako obrak hasi egin ziren eta guztia amaituta ez badago ere, zein hobekuntza egin dion herriari!

Gure herriaren patua madarikazioz beteta dago baina. Jaurlaritza aldaketa, krisisa, obrak berandutu… eta orain Portu Sailak dio ez dutela amaituko; ez dagoela dirurik, herria zatituta dagoela, proiektua auzibidean dagoela…

Herrian izugarrizko ondoeza…Inor gutxi pozik.

Ez bukatzeak bi arazo nagusi dakartza. Alde batetik eremua ez du erabat lasaitzen, korrenta asko sortzen da oraindik eta, eta bestetik herriari etorkizuna erabakitzeko eskubidea mozten dio, arrainik gabeko herria izatera mugatu nahi gaituztelarik.

Beldurrik eta konplejurik gabe lan egin beharko dugu orain arte modura, herriaren nahi nagusia bete dadin, hau da, segurtasuna bermatu eta etorkizuna bideratu. Ahaleginduko gara!

Mutriku Bizirik

KANPOKO DIKEA AMAITU!

Mutrikuren dekadentzia ekonomikoari buelta emateko, egitasmo zabal eta luzea behar dugu. Lan asko eta gestio zorrotza egin beharko da herri honetan lanpostuak sortzeko, arrantza eta nekazaritza suspertzeko, enpresak erakartzeko eta kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko. Hau guzti hau, serioski eta epelkeriarik gabe bultzatzen ez bada, urte gutxiren barruan "ciudad dormitorio" bilakatuko da Mutriku.

Kanpoko Dikea mutrikuarrok izan dugun herri lorpenik handienetakoa izan da eta gehiengo zabal batentzat oso pozgarria, baina honen inguruan jasotako azken berriak, guztiz atsekabetuta utzi gaitu.

Herria suspertze bidean jartzeko oinarrietako bat, Kanpoko Dikea dugu. Beharrezkoa da berau amaitzea, etorkizuna hobetzeko eta bideratzeko.

Inolako zalantzarik gabe esan dezakegu Kanpoko Dikea amaitzea dela hauturik beharrezkoena eta demokratikoena. Demokratikoena diogu, Kanpoko Dikea egitearen alde betidanik ia herri osoa alde egon delako, eta mutrikuarrok etorkizuna erabakitzeko eskubidea daukagulako.

Amaitzen ez bada, ezingo da beste ezer egin kanpoan eta Akuakulturan eta arrantzan oinarritutako Arrain Portu Berrian sinisten dugunok, ez dugu aukerarik izango herriari galdetzeko eta herriaren nahia jakiteko. Ezker Abertzaleak, hainbatetan esan duen moduan, herri galdeketa bultzatuko du eta horretarako bitarteko guztiak jarriko ditu.

Mutrikuko Ezker Abertzalea

ADAR JOTZE LATZA…

Kriston haserrea daukagu mutrikuarrok. Erdi alde edo erdi kontra zegoen jendeak ere, dikea amaitzeko eskatzen du. Ia herri osoa dago haserre, nahigabetuta eta oinazez beterik.

Eta zergatik ez dute dikea amaitzerik nahi? Dirurik ez dagoelako esan dute, baina hori gezur handia da, AHT egiteko 700 miloi € jarri dute eta, Donostian ere mangatik atera eta Metroa egin nahi dutela, Pasaian superpuertoa, hainbat saihesbide… Diru mordoa daukate azpiegiturak egiteko. Mutrikurako ez, baina. Hasitako obra bat amaitzeko ere ez!

Ez dago eskubiderik honetarako, ez dago eskubiderik herri sentimenduekin jolasteko, politikero batzuen interesen truke denean gainera. Eibartarra gainera!

Mutriku eta herritarron duintasuna dago jokoan eta ez dugu etsi behar. Gogor eta batuta jokatzeko deia egin nahi dizuet guztioi.

Hemendiko

(Hurrengo orrian gehiago)

GAURKO PORTUAK EZ DU ETORKIZUNIK

"Zein pozgarria itsasontziak arraina deskargatzen ikustea!" Esaldi hau sarritan entzun da aurtengo udan herriko kaleetan zehar. Apurka-apurka bada ere, Kofradia erre zenetik eskaintza hobetzen goaz eta horren ondorioz aurten kanpoko 15 itsasontzi etorri zaigu aldiro, arraina deskargatzera.

Hau honela izan dadin esfortzu handia egiten ari gara, izan ere kofradia ixteko eta gure itsasontziak erbesteratzeko gero eta ozenago entzuten delako kanpoaldetik. Hori da batzuk nahi dutena, baina egunerokoa lanaren bidez agertzen ari gara Mutriku arrantzari loturiko herria izan daitekeela etorkizunean ere.

Dena dela, Mutrikuk, etorkizun laburrean, arazo larriak izango ditu arrain deskargaren inguruan itsasontziak egoki hornitzeko, ez baitu azpiegitura egokirik, ez izotza egiteko aukerarik, ez erregaia ematerik eta kamioiek eurek ere, ez dute gure portura etorri nahi arraina jasotzera dagoen jaitsieragatik.

Garbi ikusten da gestiorako aukerak izanez gero, portua itsasontziz bete daitekeela, baina lehen esan moduan, alternatiba egokirik ezean Mutrikuk arrain portua galduko du. Askotxo dago horren zain.

Eta gaurko portuak ez du ematen aukerarik itsasontziek eskatzen dutenari egoki erantzuteko. Kanpoko aldean Arrain portu berria bageneuka, askoz ere itsasontzi gehiago etorriko lirateke eta herri hau berriro ere itsasoari begira jarriko genuke, Akuakultura proiektuekin batera.

Horretarako, Babes Dikea amaitu behar da eta gero herriari galdetu hor kanpo aldean zer nahi duen. Bestela, gureak egin du.

Mutrikuko Arrantzaleen Kofradia

MUTRIKUKO DESMADREA

Azkenaldian konturatzen gara gure umeak jolasean dabiltzan bitartean, motorrak batetik bestera joaten direla Beheko Plazatik Atxukalera. Non daude gure udaltzainak? Akaso, moilan bakarrik daukate lana multak bati eta besteari ipintzen?

Beste alde batetik, gure ibilgailu berria: la egunero geldirik dago. Lotsagarria da hain sarritan gelditzen den igogailuarentzat inork ez edukitzea eskura ateak zabaltzeko hain beharrezkoa den giltza, eta horren ondorioz lau pertsona, ordu erdi luze batez barruan gelditzea, bi ume txikirekin.

Joxemi

GUK HONELA IKUSTEN DUGU

Gaizki hasten den guztiak nahitaez gaizki amaitu beharrik ez duela sinetsita gaudenok Mutrikuren onerako eta mutrikuarron elkarbizitzarako oso beharrezko irizten diegun zenbait balorazio egin nahi dugu.

Hasteko, argi utzi nahi dugu Mutrikuko portua dagoen egoeran egoteaan zerikusi txikia duela B+I plataformak.

Argitu nahi dugu Eusko Jaurlaritza berriak eta Garraio sailak obrak izendatuta zeukan aurrekontua jan duela baino ez duela esan.

Baita ere, esan dute aurrekontu bat izendatuko dela obra dagoen tokian amaitzeko. Hondartza, pistina berria, eta energia planta ere amaituko dira, Mutrikun inork eskatu ez zuen planta, hain zuzen ere, obraren atzerapena eragin duena eta gaur egungo egoera ekarri duen gainkostua izan duena.

Beste alde batetik, iruditzen zaigu indar berberak eta estrategia berberak erabiliz (indar batasuna, sinadurak, manifestazioak, medioetan egindako bonbaketa,...) erantzukizuna eskatu beharko litzaiokeela aurreko arduradunari, gaur pairatzen ari garen zorigaitzaren arduradun zuzenari, urrezko zubia eta hiriaren urrezko domina eman zitzaizkionari, nahierara egiteko eta desegiteko aukera eman zitzaionari.

Amaitu aurretik, esan dezagun Arau subsidiarioetan aurreikusten den herri-proiektua sutsu eta itsu defendatzen dutenek ulertu behar dute herrian iritzi bera ez duen jendea dagoela, eta iritziak ez direla indarrez aldarazten. Legezko eta benetako ordezkaritza duen plataforma batek alternatiba bat aurkezten duenean, hori defendatzeko eskubide osoa izan behar du gaur artean egin duen moduko koherentziarekin, beharrezkoa denean atzera egiteko, baina inoiz ez presioak eta desengainuak eraginda.

Bukatzeko, herri osoari esan nahi diogu erraza dela, oso erraza, herria banatzea, baina atzera elkartzea zaila, oso zaila dela. Eta horixe behar dugu gaur egun gure herrian: batasuna, herriaren krisialditik irteteko eta etorkizunaren aurrean dituen zalantzak argitzeko. Gora Mutriku eta mutrikuarrak!

B+I

MUTRIKUKO UDALA ETA GATIBU

Kultura sailak herritar guztiek jakin dezaten emandako oharra

Aurtengo Malen egunean Mutrikuko Udalak Pog Mo Thon eta Gatibu taldeak kontratatu zituen su artifizialen ondoren kontzertua emateko, Udalak aurtengo malenetarako aurreikusi zuen kontzerturik garrantzitsuena.

Gatibu taldeari Baga Biga bulegoak egiten dizkio administrazio lanak, eta Baga Bigak bitartekari lanetan ibiltzen diren produkzio eta management enpresa ezberdinekin egiten du lan. Udalak enpresa hauekin izaten ditu harremanak.

Mutrikuko Udala Gazteok Management enpresarekin harremanetan jarri zen Gatiburen zerbitzuak kontratatzeko. Horrelako-etan, kontratua sinatu aurretik, baldintza guztiak betetzen diren begiratzen da, jakina.

Begiratzen den lehengo gauza katxeta edo kostua da, eta hau ordaintzea posible baldin bada, beste behar teknikoak bete ahal diren baieztatzen da (eszenatokiaren neurriak, segurtasuna, argindarra…). Normalean talde handiek baldintza asko eskatzen dituzte, baina herri txikietan edo lokaletan jotzen dutenean euren eskaera egokitzen dute. Kontratuan agertzen diren baldintzak egokitu eta aldatu egiten dira, eta orduan sinatu. Adibidez, iaz Txurruka plazan jo zuen Luarna Lubrek musikariekin batera ikus-entzunezko espektakulo bat zuen, Txurruka plazako eszenatokian egin ezin zena. Hitz egin ondoren, akordio batera heldu ginen eta kontzertua burutu egin zen.

Gatiburen kasuan baldintza guztiak betetzen zirela ikusi genuenean, Udalak Gazteok enpresarekin kontratua sinatu zuen. Malenak baino bi hilabete lehenago Gatiburen web orrialdean Txurruka Plazako kontzertua iragarrita zegoen.

Malen eguna iritsi zenean, ohikoa den bezala, montajea egiteko gelditu ginen. Kontzertua hamaiketan izanda, arratsaldeko ordu bietan Baga-Biga, Gazteok eta Udaleko ordezkariak elkartu ginen montajea hasi aurretik. Gauza guztiak (tarima, argi tomak, ekipoa…) ondo zeudela baieztatu genuenean (hiru aldeen oniritziarekin) montajea hasi zen. Esan behar da Baga-Bigako ordezkariak lehendik ere Mutrikuko herria oso ezaguna duela (Disko Jai-etan DJ moduan ibilita). Hortaz, Txurruka plaza aurretik ere ezagutuko zuen.

Arratsalde partean, montajea amaitu eta gero, musikariak soinu frogekin hastean, Gatiburen partaideek tarimara igo, plaza ikusi, ez zutela joko esan, eta joan egin ziren, udalaren ordezkarien aurrean ezer esan gabe.

Baga-Biga, Gazteok eta Udaleko arduradunak batzartu egin ginen. Baga-Bigako arduradunak –ordu bietan dena ondo ikusten zuenak– bapatean esan zuen Txurrukaren monumentua ez zela kontratuan agertzen, eta ezin zutela plaza honetan jo. "Mutrikukoa bezelako plaza batean jotzen badugu, gero Bilbo batean ezin izango dugu ezer exijitu", "duten kañarekin eszenatoki honetan ez du luzituko..." eta horrelakoak entzun behar izan genituen.

Musikariak ez zirela bueltatuko ikusi genuenean, Zea Mays taldeari deitu genion (gaueko bederatziak aldera), eta baietz, etorriko zirela. Baga-Bigakoa, hori jakin zuenean, argi eta soinu ekipoa erabiltzeagatik dirua eskatzen hasi zen. Gaueko hamaiketako egoera: Gatiburen ekipoa montatuta eta hauek alde eginda, Zea Mays taldea udaletxeko arkupeetan zain, joko zuten jakin gabe, eta udaletxe barruan Baga-Biga, Gazteok eta Udaleko arduradunak, kontzertua salbatzeko akordio batera heldu nahian. Azkenean, nahiz eta atzerapenarekin izan, Pog Mo Thon eta Zea Mays taldeek jo zuten.

Jaiak pasatu zirenean, Baga-Bigako zuzendariarekin batzartu zen udala, eta Gazteokekin beste batzar bat egingo da egoera argitzeko. Udalak ez du ordainketarik egin, eta argi du Gatibu taldeari ez diola inongo dirurik emango. ✘

Maneiro
lentzeria
barruko arropak
eskulanak
hariak
Erdiko kalea, 27 - 943 60 31 76

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

ZUTABE
sukaldeko altzariak
OSA

.....dekorazio proiektuak
.....sukaldeak
.....ateak
.....leihoak
.....egurrezko lurrak
.....neurriko altzariak
...gremioen koordinaketa
Artibai kalea - ONDARROA - 94 683 02 29 - zutabesukaldeak@euskalnet.net

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

MUTRIKUARRAK ALPEETAN MENDIAN GORA, MENDIAN BEHERA

Ez dira makalak, ez. Nekane Ituarte, Kosme Arrieta eta Iñaki Agirrezabalagak bete dute euren helburua: Mont-Blac lasterketa egitea. 166 kilometro eta 9.400 metroko desnibel positiboa. Abuztuaren 28an, ostiralean, sei eta erdietan abiatu ziren eta 30ean, igandean, ordu biak eta hamabi minutuan iritsi ziren helmugara, hirurak batera, 43 ordu eta 43 minutuz aritu ondoren.

Lehenengo 78 kilometroak izan omen ziren gogorrenak, jaitsierak ere oso luzeak eta gogorrak. Lehenengo gaua lainopean eman zuten, kontu handiz ibili behar, galtzea erraza zen eta. Lainoez gain hotza ere handia, 2.500 metrotara zeuden eta.

Arazo fisiko batzuk izan arren, aurrera egiteko kemena bildu zuten hiru lagunek, eta horretan burua ondo izateak garrantzi handia omen du.

Antolakuntza oso ona, kontrol guztietan janariez eta edariez gain, masajistak, medikuak… eta inguruko jendea beti prest edozertan laguntzeko.

2.300 kirolari irten ziren eta erdiak inguru lortu zuten helmugara iristea. Baina ez dira bakarrik joan, laguntza komitea ere izan dute eurekin bide osoan, Leire, Ainhoa, Maite eta Idurre. Janaria eta arropaz arduratzeaz gain animoak eta mimoak banatzeko ardura ere izan dute. Era berean, lerro hauen bidez udalak emandako laguntza eskertu nahi dute.

Iñaki, Nekane eta Kosme helmugara heltzen.

Baina ez dira izan hauek Mont-Blanc mendian izan diren bakarrak. Atharratze Beristainek ere egin du bere marka, Mont-Blanc lasterketa motza, 98 kilometrokoa. Aipagarria da Atharratzek eta neska-lagun Maitek egun batzuk lehenago Mont-Blanc tontorra egin zutela.

Kalaputxiren zorionik beroenak jaso itzazue guztiok! ✘

BABES DIKEA AMAITZEKO ESKARIA

Gure herriko portua babesteko eraikitzen hasi zen dikea gelditu zenean, herritar guztioi zalantza egin zitzaigun aurrerantzean zer gertatuko ote zen. Harrez gero, hauteskundeak ere izan ziren Parlamenturako, eta Jaurlaritza berri bat osatu zen. Zer gertatu behar zuen?

Herriko zenbait ordezkari Jaurlaritzako Herri Lan sailburuarekin izan zuten batzarrean Jaurlaritzaren asmoen berri jaso zuten. Batzuk pozik, beste batzuk haserre, Jaurlaritzaren esanetan, itxura denez, babes dikea dagoen horretan amaituko zela adierazi zelako.

Zerbait egin behar zelakoan, Mutriku Bizirikek herriko hainbat eragilerekin elkartu eta babes dikea amaitzearen aldeko manifestua egin zuen Eusko Jaurlaritzari zuzentzeko. Labur esanda, dikea ezin da horrela utzi, amaitu egin behar da, eta Mutrikuko herriak horixe eskatuko du.

Udalbatzak ere Mutriku Eginezek manifestuarekin bat egiteko udalbatza berezia egin zuen, eta bertan EAJ, EA, eta Ezker Abertzaleak ontzat hartu zuten. Berdeak+Independenteak taldeak, berriz, ez zuen ontzat hartu eta bere proposamena egin zuen, dikea bere horretan amaitzearen alde.

Abuztuaren amaieran hasita, hirutan bete-bete egin dira jendez elizako eskailerak, eta Piñastegi egunean ere manifestaldi jendetsua egin zen Babes dikea amaitzeko eskariari oihartzuna ematearren.

Ikusiko da aurrerantzean Jaurlaritzak ze mugimendu egiten duen. ✘

Mutriku Bizirik taldeak deitutako kontzentrazioa

SAN NIKOLAS

ZAHARRENTZAT, UMEENTZAT... GUZTIENTZAKO EGUNA

Goizeko hamaiketan eguraldi ederra lagun zutela eta ohiturari jarraituz Tolentinokoaren kaperatxo aurrean bildu ziren ehunetik gora lagun herriko bikario jaunak zuzendu zuen meza entzutera. Arboladiaren itzalean Azpillagaren bertsoek eman zioten bukaera mezari, eta mokadutxoa jateko gonbita egin zitzaien bertaratutako guztiei kaperaren atzealdera.

Auzoko emakumeek salda beroa, txorizo egosia ogi tartean, ura eta ardoa prest zituzten solasaldirako unea harik eta egokiago egiteko. "Tolentino" bedeinkatuak ere zabaldu zituzten komentuko ohiturari jarraituz. Nola ez, kaperatxoa, beti bezala, garbi eta lorez apainduta zegoen, eta bertaratutakoen kandela piztuek betetzen zuten aldare ingurua.

Aurten, ez zen goizean bukatu festa. Arratsaldean, itxapleruen oihartzunak haurrentzako jolasei eman zien bide, eta auzoan prestatutako kartoizko zezenak izutu zituen globoekin jolasten ari ziren umeak. Esan digutenez, datorren urtean pare bat "kabezulo" berri ageriko dira zezenari laguntzen. ✘

SAN JERONIMO

USAIÑA BAI, ANTZIK EZ!

Kalbarioak igarota, gure artera neguko martxa heldu dela entzun ohi da Mutrikun, baina neguaren aurretik jai gehiago ere badugu gurean: San jeronimo jaixak.

Azken urteetan bezala, aurtengoan ere egitarau bete-betea prestatu dute Mijoa aldeko baserritarrek. San Jeronimo egunean bertan, meza izango da goizeko hamaiketan, eta jarraian auzoko gazteen arteko herri-kirolak (txokorrak, trontza, txingak eta soka tira. Arratsalde partean, bostetatik aurrera umeentzako jolasak, pottokak eta zezen txikiak izango dira. Iluntzeko zortzi eta erdietatik aurrera, erromeria Laihotz taldearekin. Auzoko gizonezkoek afaria prestatuko dute guztien artean afaltzeko.

San Jeronimo eguna ospatuta, asteburuan jaiak jarraitu egingo du: Barixakuan, urriak 2, kontzertua izango da goizaldera arteko giro ederrean. Taldeak, Lain, Nahixan, eta Giza Baliabideak.

Zapatuan baserritarren eguna izango da eta azken bost urteetan arrakastatsua izan den Txotx afaria izango da, sagardo eta saiheski jan-edanean, bertsolariek girotuta. Afari honetan berezitasunaik izango da aurtengoan. Batetik, duela hilabete batzuk erretako Txartxa baserriaren aldeko bilketa izango delako; bestetik, sorpresaren bat izango dela iragarri dute antolatzaileek.

Afariaren ostean, erromeria izango da Imuntzo eta Belokirekin, eta goizaldean, ohitura zahar eta onei jarraituz, txokolatada eta berakatz zopa berezia izango da.

Urriaren 4an, igandearekin, meza izango da 11etan. Ondoren, soka-tira lehia bikainean hartuko dute parte sei bikotek. Ondoren, jaietako errifa egingo da. Eguerdian, jaiei bukaera emateko, Auzo bazkaria izango da, ohitura zaharrari jarraituz. Aurten, lehenengo aldiz, elkartzen diren auzotarrak argizki batean gordeko dira.

Eta domekan bertan ezagutuko da baita ere, aurten lehenengo aldiz antolatu den "piropo" lehiaketaren irabazlea. Jakingo da zeinek idatzi duen lorarik ederrena, horixe baita lehiaketaren helburua: Lorarik ederrena idatzi eta horretarako jarriko diren kutxetan sartu, izen-abizenak erantsita. ✘

VITALICIO SEGUROS
Andonegi Asesoría
Erdiko kalea, 3 behea - Tel.: 943 60 39 05 - Mutriku

MUTRIKUKO TANATORIOA
Ntra. Sra. de Begoña EHORZKETA
Iriagirre z/g
Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)

KALBAIXO

HIRU AUZOETAKOAK JAIETAN ETA LEHIAN

Joan dira Kalbaixoko jaixak, baina gure buruak pozteko zera esan behar, datorren urterako gutxiago falta dela. Urtero bezala, aurtengo jaiak ere ederrak izan dira. Nahiz eta egunik indartsuenak astean zehar tokatu diren, denok ere ermitaraino igo eta txakolin eta pintxoak dastatzeko astia hartu dugu. Esan bezala jan eta edanerako hartu dugu astia, baina lanerako ere bai. Ikusi eta bizi izan ditugun egun hauek ospatzeko bertakoak antolatu egin behar izan dira. Ibiri, Olabarrieta eta Langa auzoetako lagunak bildu eta, bai jaien aurretik eta baita ondoren ere, izugarrizko lana egin dute. Oso gustura gelditu dira egin duten guztiarekin, baita jendearen parte hartzearekin ere.

Aurtengo asmoa gauza berriak eskaintzea izan da, beti ere, ohiturak alde batera utzi barik, hau da, herri kirolak, bertsolariak, idi probak...

Umeentzako ere egun berezi bat prestatu zuten. Hilak 19, zapatuan, Arnope frontoira hurbildu ziren ume, gazte eta guraso guztiek zoragarri pasatu zuten. Bertan, puzgarrietan ibiltzeko, tailerrak egiteko eta txokolate eta madalena ederrak dastatzeko aukera izan zuten. Hau guztia, eguraldi ona egin balu, Kalbaixon bertan egingo zen, baina, egun horretan eguraldiak ez zigun batere lagundu. Bai, ostera, domekan, egun bikaina egin baitzuen auzoen arteko Herri Kirolak egiteko. Badirudi kristo Kalbaixokoak argi egin ziela, probak bukatu bizain laister zapadarra ederra bota baitzuen.

Auzo bakoitzetik sei ordezkari bildu ziren, neska eta mutil. Hauek hiru proba bete behar izan zuten: lehenengo, kaskara batzen; bigarrenik txingak eruaten; eta azkenik, bikoteka trontzan. Guztiak auzokoak, baina ez profesionalak, eta esan beharra dago dotore egin zutela lana. Baita, goizean goiz Txirrinduan eta korrika jardun zutenek ere. Aurten Kalbaixon desafioa izan baitugu. Auzoko batzuek pentsau eta egin. Gogor aritu ziren, Mutrikutik bizikletan abiatu eta Kalbaixoko bidegurutzeraino, bizikleta hantxe utzi eta korrrika beheruntz, bidean daukagun oroimen-gurutzeraino, ondoren berriro gora korrika eta helmuga ermitan. Proba itzela!

Hurrengo urtean, antolatzaileek diotenez, auzokoen partehartzeaz gain herritarren partehartzea nahiko lukete. Aurten, ez dute herrian informazioa zabaltzeko denbora gehiegirik izan, baina bueno, hurrengoan hobeto.

Orokorrean, pozik gelditu dira bertakoak herritarren parte hartzearekin eta egin dute lanarekin. Eskerrak eman nahi dizkie Kalbaixoko Ermitaraino hurbildu diren guztiei eta baita jai hauek ospatzea posible egiten duten pertsona guztiei. Mila esker eta hurrengo urtera arte. ✘

komikixa — **josu ituarte "pitxame"**

MISIO-LURRETAKO BERRIAK

Oporrak pasatzera etorri izana aprobetxatuz, Felix Mariezkurrena apaiz pauldarrarekin biltzeko aukera izan dugu abuztuan. Beste zeregin askoren artean, Mutrikuko Udalak emandako diruarekin egindako lanen berri ematen izan da. Txukun-txukun antolatuta ekarri digu Felixek Honduraseko misio-lurretan egindako eskola eta bestelako proiektuen argazki eta informazio guztia. Gustura aritu gara bere argazki guztiak ikusi eta azalpenak entzuten; harro egoteko moduko aurrerapausuak denak ere!

Iaztik ere bagenekien San Frantzisko izeneko eskolatxo bat eraiki zutela Mutrikutik eramandako diruarekin. Diru apur bat geratu zitzaien, eta Santurtziko Parrokiak emandakoari gehituta, bigarren eskolatxo bat eraiki dute, San Jose izenekoa. Eskola hori lehendik ere bazegoen, baina lurrikaren eta euriteen eraginez, poliki-poliki galtzen ari zen, eta lur eta guzti mendian behera joateko arriskuan zegoen. Hori dela eta, beste leku bat aukeratu zuten eskola berria eraikitzeko. Bertakoek egin zuten lan guztia, auzolanean. Kanpoko aldean, barbakoa egiteko leku baten antzeko zerbait ere eraiki dute. Felixek kontatu digunez, hantxe egiten dute sua eta prestatzen diete umeei bazkaria. Barazki eta bestelakoak biltzen dituzte eta horiekin prestatzen dute eskolakoentzako bazkaria. Hango ume askok bide luzea egin behar izaten dute eskolara iristeko, eta bazkaria bertan ematea erreklamo handia da familiek umeak eskolara bidal ditzaten. Gainera, horrela, umeak ondo janda daudela bermatzen dute.

Maisuarentzako etxetxo bat ere egin dute eskolaren ondoan; gela bakarrekoa, jatorduak prestatzeko su txiki batekin hornitutakoa. Maisu horrek, bestela, 5-6 orduko bidea egin beharko luke oinez herriska horretako eskolara iritsi ahal izateko (beste horrenbeste, itzultzeko), mendi-mendian dago-eta. Eskola horretara hogeiren bat ume biltzen dira, adin guztietakoak, eta denek elkarrekin ikasten dute. Eskolaren ondoan, pare bat komun ere egin dituzte.

Eskolak alde batera utzita, hilero edo pare bat hilabetetik behin biltzen dira herritar batzuk apaizarekin, Solidaritate-bilerak egiteko. Solidaritate-talde horietan erabakitzen dute nolako premiak dituzten eta non dauden lehentasunak eta zeri ekin. Beraiek erabakitzen dute zein proiekturi helduko dioten, zeintzuk diren familiarik behartsuenak, eta umeak eskolara bidal ditzaten eman beharreko diru-laguntzak, eta nola aurre egin beste makina bat arazori.

Mutrikuko udalaren aurtengo diru-laguntza emakumeen osasunaren aldeko ekintza bati ekiteko erabili dute. Minbiziaren Aurkako Ligaren laguntzaz, mendian bizi diren emakumeei azterketa ginekologikoa egitea da plana. Aurten, 106 emakumek izan dute mamografiak eta zitologia egiteko aukera. Emakume horiei, gainera, bularretako autoesplorazioa nola egin eta beste zenbait ohitura osasungarri ere irakatsi dizkiete.

Eskerrik asko Mutrikuko udalari Felixen izenean! ✘

> **taldean erabakitzen dute nolako premiak dituzten eta non dauden lehentasunak**

Narkis Andonegi, kresalak zaildutako bizitza

Kinka larrietan ohituak diren gure arrantzaleei asko kostatzen zaie grabagailu baten aurrean jartzea: "*halakok nik baino hobeto kontatuko dizkik*" edo "*nik zer esango diat, ba*" dira ohiko erantzunak; ez gara konturatzen mendeetan gure herriaren arima izan den arrantzale kultura galtzear dagoela, urte gutxiko bizitza duela, eta asko dutela oraindik kontatzeko adinean aurrera doazen gure arrantzaleek.

Ahaleginetan ari dira gure artean testimonio bitxi horiek jasotzen; geuk ere apur bat erantsi nahi izan diegu ahalegin horiei, eta, kostata izan arren, hemen dugu Narkis Andonegi gure Kalaputxin bere itsas bizitza kontatzeko asmoz, nahiz eta bere argazkia azalean agertzeari hamasei metroko olatuak gainditzeari baino ikara handiagoa dion.

Narkis, Jose Luis eta Josu anaiekin, Belgikan

Nola hasi zen zure harremana itsasoarekin?

Beste mutrikuar askorentzat bezala, hor genuen, haren aurrean jaio ginen eta gure arteko zerbait izan da; falta dugunean bakarrik jabetzen gara itsasoaren hutsuneaz. Etxean ere aita itsas gizona genuen, alturako ontzietako patroia, beraz esnea bezala izan dugu kresala. Hala ere, gure adinekook haustura latza izan genuen haurtzaroan itsasoarekin: gerra!

Mila bederatziehun eta hogeita zortzian jaioa naiz, eta gerra hasi baino hilabete lehenago bete nituen zortzi urteak. Gure aita gudariekin joanda, anaiarreba guztiok amarekin etxean gelditu ginen; baina, Mutriku hartu ondoren, denok bidali gintuzten herritik Bizkaia aldera, oinez. Lekeitioraino iritsi ginen horrela, eta handik kamioi baten egin genuen Bilborainoko bidea. Aita Euskal Gobernuaren aginduetara zegoen arrantza ontzi baten patroi lanetan, eta elkarrekin bizi izan ginen Bilbon anaia zaharrena Jose Luis, Josu eta hirurok, hala beharrez beste zenbait umerekin Frantziako Capbretonera bidali gintuzten arte; ama, arrebak eta Sabin Donibane Lohitzunera bidali zituzten beranduago. Anaiok Belgikara zuzenduak izan ginen ondoren, lehenengo Bruselan eta handik Antwerpen-eko kolegio batera. Hilabete baten inguruan hurbil zegoen Lier-eko baserri bateko familiak eraman ninduen bere etxera, eta Jose Luis eta Josu beste bi familia artera eraman zituzten.

Ez zen egoera ederra izango! Nola konpondu zineten hizkuntzarekin?

Mutiko andana bidali gintuzten gerrari ihesi, eta gobernuak jarritako arduradunak ziren bitartekari lanak egiten zituztenak. Antwerpen-en ere arduradunak genituen, baina baserrira joan ginenean ahal genuen eran konpondu behar izan ginen, eta, jakina, nederlandera ikasi. Anaiok noizbehinka izaten ginen elkarrekin, oso gutxitan, beraz, etxe hartako umea izan nintzen beren seme-alaba ezkonduak etxetik kanpo bizi baitziren.

> **Gure adineko jendearii gerrak itsasoarekin haustura latza ekarri zigun**

Hamaika urte nituen ordurako Mutrikun zegoen amarengana etortzeko aukera eman zigutenean. Aita ere espetxean denbora bat igaro ondoren etxean zen, eta denok elkartu ginen berriro. Dena den, ez zitzaidan batere erraza egin Mutrikura ohitzea: nederlanderaz mintzatzen nintzen eta inguruko zenbaitek, eta ikaskideak batik bat, burla egiten zidaten. Egoera hark

ELORRETA, S.L.
ERAIKETAK · ERREFORMAK · IGELTSERITZA
Asier Lersundi
680 579 961
Kepa Martinez
617 842 004
San Agustin 48 · MUTRIKU · Tel. eta Fax 943 603 287 · elorretasl@gmail.com

PANADERIA POTERO OKINDEGIA
GREGORIO ITZUE
ETXEKO TEL. 943 60 43 17
DENDAKO TEL. 943 60 36 43
OKINDEGIKO TEL. 943 60 45 12

Gure San Agustin itsasontziko patroi, 1972 urtean.

Ontziko egunerokoa, 1970ean Narkisek euskara txukun eta garbian idatzia

1964an, Abdijango portuan, mutrikuarrak eta hondarrabitarrak. Narkis, tente, eskuinetik hirugarrena.

nederlandera gorrotatzeraino eraman ninduen. Eskolan ez nintzen gai arbelean orduko irakasle maristak agindutako zifra bat idazteko ere, eta pentsa, zazpi urterekin erabilitako koadernoak aurkitu nituen etxean "kebradoz" beteta.

Gainditu beharreko parentesi bat izan zen gure bizitzan. Ondoren, hamalau urte arte jarraitu nuen eskolan orduko egoera normalean.

Eta hamalau urterekin, itsasora?

Ez. Nire lehenengo lana loja zaharpean zegoen tailer mekanikoan izan zen, "pintxe" lanetan. Urtebete inguru egingo nuen, eta gero itsasora, nire ilusioa zen itsasora, Jesus Masillasekin. Harekin bizi izandako gogorapen ederrak ditut, gizon ona, errespetuduna eta maisu aparta; bere etxera eramaten ninduen, eta arrantza-aparailuak egiten irakatsi. Pare bat kostera egin nituen hurbileko arrantza mota ezberdinetan.

Aita izan zen hurrena arrasterako gonbita egin zidana, bera Pasaiatik zebilen patroi lanetan, eta, bi aldiz pentsatu gabe, baietz esan eta berarekin joan nintzen. Itsasontzian genbiltzala patroitza liburuak irakurtzen genituen denbora libreak aprobetxatuz, beti ere, zerbait gehiago ikasteko; eta, hala, mariak utzi eta Ondarruko ikastetxera joanda atera nuen patroi titulua. Hura eskuetan nuela, bakailaotarako gonbita egin zidaten, eta nik beti aurrera! Balio handiagoko tituluak ateratzeko itsas egunak komeni zitzaizkidan, eta bakailaotarakoek, ontzi handiagoak, balio handiagoa zuten arrasterakoek baino; horrela, urte eta erdi bat igaro nuen Ternua aldean bost mariatan, hotza galanki pasatuz.

Behin patroi titulua eskuetan, non ibilia zara?

Ondarruko portutik ontzi ezberdinetan egin izan dut lan, "kosta" lanetan gehienetan, Frantziako eta Ingalaterrako uretan ia denak arrastan eta azkenak pintxoan; baina baxurako arrantzan ere ibilia naiz Mutrikutik eta Ondarruatik Afrikako Dakar aldera joaten ginenean atuntzura. Horrela, berrogeita hemezortzi urterekin jubilatu nintzen arte.

Ternuan bost maria egin nituen. Hura zen hotza!

Itsasoan olatu asko pasatuko zenituen... Ontzi barrukoak ala kanpokoak dira zailagoak?

Egia da leku txiki batean egun bat, eta gero bestea, eta bestea ondoren…, ez dela izaten erraza bizikidetzarako; haserreak ez badira ere, askotan bata besteari zer esanik ezean geldtzen zara: aztertzekoa litzateke maria baten lehenengo egunetik eta azkenera nola aldatzen diren elkarrizketak. Ateko bandan biziak eta alaiak izaten dira, eta moteldu etxeko bandarako, betiko errazkerietan eroriz gehienetan. Dena den, bakoitzaren izaerak asko egiten du, eta tripulazio oso onak ere izan ditut.

Kanpoko olatuek, ostera, ez dute aukerarik, pasatu egin behar dira, eta horretarako trebatuta egon beharra dago. Gogoratzen naiz behin, lehorrean nengoela, "Hoja del Mar" aldizkaria eskuetan hartu nuela, eta bertan irakurri gu ibilitako leku eta egunetan hamasei metroko altuera zuten olatuak neurtu zituztela. Larritasunak ere pasa izan ditut; behin, "parejan" genbiltzala arrastan, komunikazioa eten zitzaigun lagunarekin itsaso zakarra genuela, eta galdutzat eman genituen: gogorra! Ez zen ezer gertatu, ondo atera ginen. Hainbeste urte ur gainean, liburu baten ez lirateke kabituko bizi izandako pasadizoak.

Eta etxea? Familia?

Arrantzalea ez dut uste inoiz ohitzen denik familiatik aparte egotera. Egiten duzuna eurei begira egiten duzu, eta beti dituzu presente. Tristea da haurren heziketa nahi zenukeen bezala jarraitu ezin izatea: ezin jolastu, ezin barre egin, ezin haserretu noizbehinka. Amarena da eginkizun zail hori guztia, eta arrunta da entzutea "ikusiko dezue aita etortzen danian!". Eta horrek askotan kezkatzen ninduen, ez ote zuten haurrek aita mamu bat bezala ikusiko? Orain nire kezka nagusia belaunak dira; nola aldatzen diren gauzak! ✘

.....ITXAS EGUNA 2009-VI



-28 San Pedro bezperan.....

ITSASOAN GALDUTAKO MUTRIKUARRAK (1560-2009)

Eskerrik asko, Aitziber, Garbiñe, eta Jon "Xoxua"

SORGIN ERREKA

MENDI KIROL ELKARTEA

Sortu berri den elkartea, ilusioz eta gogoz betea. Maite duten eta zainetan daramaten kirolaren aldeko apustua egin dute mutrikuar hauek, hain zuzen ere eskaladaren aldekoa. Erdi txantxetan edo agian bene-benetan fanatiko hutsak direla diote, eta fanatismo hau gazteei eta ez hain gazteei erakutsi nahi diete. Elkartearen hasierako asmoa biltzeko eta entrenatzeko txoko bat lortzea izan da. Bertan, beraien esperientziak trukatu, irteerak antolatu eta, batek daki, etorkizunean agian ekintza bereziak edo txapelketak ere antolatuko litezke. Proiektu honetan sinesmena dute eta benetako apustua egin dute. Aurrerantzean, nahi duten herritar guztiei zabaldu nahiko liekete gune hau. Gehiago jakitearren, Igor Mendizabalekin eta Xabin Ulaziarekin izan gara.

Nola sortu da edo nondik dator eskalada talde bat sortzearen ideia hau?
Ideia hau pentsatzen dugu aspalditik zegoela herrian, baina aurrera eramateko ez ginen nahikoa jende batzen eta ez genuen pentsatzen jendea proiektu honetan sartzeko prest egongo litzatekeenik. Lanerako prest eta motibatuta aurkitu ginenean, deialdi bat egitea okurritu zitzaigun eta ikusi dugu erantzun oso ona izan dela, oso-oso ona.

Nola egin duzue jendearengana hurbiltzeko eta ideia hau zabaltzeko?
Batez ere ahoz ahokoa. Eskalatzen ibili den jendeari, eskalatzea gustoko duenari edo izan dezakeenari abisatu eta bilera bat egitea pentsatu genuen. Bileran, gehienbat, lokala zein izango zen eta gastuak zeintzuk izango ziren aipatu genuen. Proiektua pixkat gainetik azaldu eta bukaeran aurrera egiteko nortzuk egongo liratekeen prest galdetu genuen. Ehuneko laurogehita hamarrak baietz esan zuen.

Jende kopuru bat bilduz gero, zuek garbi zenuten egin beharreko bidea...
Bai. Antzeko beste egitura batetik gentozen, Debako rokodromotik. Hau ez da sortu berez, perretxikoak udazkenean bezala.

Zer iruditzen zaizue jendearen erantzuna?
Guretzat ona. Guk ezagutzen genuen jendea bagenekien proiektu honetan sartzeko prest egongo zela, baina ez genekien gastuei aurre egiteko gai izango ginatekeen. Azkenean, ondo, jendea apuntatu da, gogotsu hasi gara, eta hilabete baten rokodromoaren erdia montatu degu.

Herrian honen beharra zegoela sumatzen zenuten?
Ez, beharrik ez dago. Gu azken batean honen fanatiko batzuk gara. Guk bai daukagula beharra. Orduan, guk beste jende baten beharra daukagu proiektu hau aurrera eramateko eta herriko gazteak edo beste edozein honen fanatiko bihurtzea nahi degu.

Azken batean, gustuko duenarentzat da rokodromoa, eta badirudi guk uste baino jende gehiagori gustatzen zaiola. Harriturik gelditu ginen hasierako batzarrean baietza eman zutenen kopurua ikustean. Pentsatzen genuen jendeak baietza emango zuela, baina han zegoen ia jende guztiak di-da baietza emateak harritu gintuen.

Hasierako bileran bildu zinetenetatik zenbat zaudete orain?
Egun hartan 20 edo 22 lagun bildu ginen, eta 18k baietza eman zuten momentuan. Bertan gaztetxo batzuk ere bazeuden, eta agian aukera ekonomikoa zela eta atzera egitea normala iruditu zitzaigun. Orain, 27 lagun gara eta oraindik gaztetxo batzuk ere galdezka eta lokala ikusteko irrikitan daude.

Batzuk gazteei sarrera erreztearen aldekoa dira, baina taldean erabaki behar den gauza bat da, behintzat hitz egitekoa. Pentsatzekoa da denoi komeni zaigula proiektu honek bizitza izatea eta gauzak mugitzea.

Ideia hau aurrera eramateko hitz egin duzue elkarte, uda-

PAGOAGA S.A.
iturgintza - berogintza - gasa
igeltsaritza - croztegia
Tel.: 943 74 02 79 - 943 74 05 12
Faxa: 943 74 35 65 / e-mail: pagoagasa@euskalnet.net
San Antolin, 13 - 20870 ELGOIBAR

letxe edo norbaitekin?
Ez. Gure ustez, zerbait eskatzen hasi aurretik elkartea osatuta egon behar da. Elkartea osatu ondoren ateak jotzen hasiko gara, edozein ekintza, txapelketak edo edozer gauza egiteko.

Txapelketak diozue; herritarrei begirako zerbait egiteko asmorik bai, ala?
Agian ez da ezer egiten, jendearen borondatea eta parte hartzea ere behar-beharrezkoak baitira honelako gauzak aurrera eramateko. Denok gaude lanean, denok daukagu geure bizitza pribatua, aste bukaeretan kanpora irtetzen gara eskalatzera... eta, noski, herri mailan honelako ekintzaren bat prestatzeak dedikazioa eta denbora eskatzen du. Ikusiko dugu denbora pasatu ahala zer gertatzen den. Azkenean, hasiera baten behintzat, montatu dugun lokal hau entrenatzeko egin dugu.

Lokala montatzen amaitzen denean, taldean erabaki beharko da zer egin nahi den, zenbat jende egongo litzatekeen lanerako prest... Batzuentzat nahikoa da hileko kuota ordaindu eta entrenatzeko lokal bat izatea, berez horretarako egin dugu eta. Hortik aurrerakoetarako hitz egin beharko da. Zerbait egiten bada edo zerbait egitea pentsatzen bada, taldeari begira egin beharko genuke lan, hau da, guretzat, barne dinamizazio bat egon beharko da hau beheruntz joan ez dadin, adibidez, gure artean irteeratxoak antolatuta...

Elkartea aipatu duzue...
Bai, Mutrikuko Sorgin Erreka Mendi Kirol Elkartea. Bai izen rimbombantia! Identifikazio fiskalerako kodea ere atera dugu.

Eta zer eskeintzen digu txoko edo elkarte honek?
Eskalatu eta entrenatu nahi duenarentzat topagune bat. Eta Eskalada eta mendira irteerak egiteko abiapuntua, batez ere bazkideen artean. Irteera hauetan gehiago dakitenek besteei teknika ezberdinak erakutziz. Printzipioz entrenatzeko areto bat da hau, sozializatzeko gune bat, baita penak kontatzeko txokoa ere, makina bat aldiz egin duguna. Benetan merezi duen proiektua dela pentsatzen dugu, makina bat ordu kendu diegu beste gauzei hau aurrera ateratzeko.

Talde honetako partaide izan nahi izanez gero, zer egin beharko genuke?
Bada, etorri eta apuntatu, besterik ez. Taldea irekia da, bazkide egitea posible da. Kirola atsegin izanez gero, oso kirol polita da eta jendea hau ezagutzera animatuko genuke. Berez, ez da kirol arriskutsua, beste edozein kirol bezalakoa baizik. Aukera bat gehiago. ✘

Entrenatzeko areto bat antolatu dugu, eskalada zaletasun dutenentzako bilgunea

Mutriku, soziologia azterlanerako eredu

Andreas Hess (Alemania, 1959) aski ezaguna dugu herrian, bistaz behintzat, izan ere, azken 25 urteetan, hutsik egin gabe dator uda aldean Mutrikura. Unibertsitateko ikasketak Alemanian bertan eta Canadan burutu ondoren, graduondoko ikasketak Berlinen burutu zituen. Ingalaterran eta Irlandan jardun du lanean, unibertsitatean soziologia ikasgaia irakasten, horixe baita bere jakintza arloa. Aurten argitaratu du Reluctant Modernization liburua, Euskal Herriko gizarteari buruzko azterlana. Estatu Batuetako Yale unibertsitatera inbestigazio-beka batekin joan aurretik hartu gaitu, batez ere Mutrikun oinarritutako liburuaz hitz egitearren.

MUTRIKU DESKUBRITU

Duela hogeita bost urte Galdonako kanpinera heldu, herrira jaitsi eta herria deskubritu zuenean, Andreas Hess azkar konturatu zen herri bitxi batera heldua zela. Munduan zehar ibilitakoa zen bera, baina Mutrikuk beste inon aurkitu ez duen xarma bat eskaini zion, eta gaur arte gorde duela adierazi digu. Ametsa zuen Mutrikun egoitza izatea, berea, eta, azkenean, etxebizitza bat erosia du gure herrigunean. "Arantza Basterretxeak bere etxean hartu gintuen uholdeak kanpinean harrapatu gintuenean, eta garai hartan ikusi nuen gerora nire lanetan aztergai hartu izan dudan printzipio bat: Jendeak ez ditu beti gauzak egiten trukean zerbait espero duelako". Harrez gero, herri honekin kateatu, eta gaur arte iraun dio maitemintze horrek.

Aurten kaleratu duen liburuan (Reluctant Modernization), Mutriku hartu du, beste batzuekin batera, euskal gizartearen paradigmatzat, hasi ere, gure herrian bertan hasi zitzaiolako ideia sortzen: Liburua idazteko lehenengo ideia duela hamar urte piztu zen. Portuan subasta baten egon ginen, eta neskalagun ohiari prozesuaren azalpena ematen ari nintzaiola berak esan zidan "Hirschmanek bigarren puntuan adierazten duen moduan dabiltza egiten!".

Komentario hartatik hasi zen Andreas bere tesia eraikitzen. Izan ere, Andreasek bat egiten ez zuen tesi bat eraiki zuen Otazu soziologoak, esanaz euskal berdinzaletasuna edo igualitarismoa jauntxoek sortutakoa zela, jauntxoek erabakitakoari men egiten diotela menpekoek, herritar soilek. Maila sozialak gainditua gizabanakoen arteko berdintasun hori modu herrikoian eraikia dela. frogatu nahi izan du Andreasek azterlan honen bitartez. "Herrikoiak dira hemen erabakiak. Jauntxoek aginduko dute, baina erabaki asko eta asko modu mankomunatuan, guztien arteko adostasunean oinarrituta hartuko dira. Itsasoan, baserrian zein kalean, berdintasun printzipio nagusi batekin jokatu izan da herri honetan, eta oraindik ere jokatzen duzue. Jauntxoek esango zuten modernizatzeko, baina euskal gizarteak esango zuen: Bai, modernizatu bai, baina kontuz, gure izatea ahaztu gabe...".

TEORIA ETA ERREALITATEA

Edozein tesi aurrera eramateko komenigarria denez, teoria eta praktikaren arteko lotura bilatu du Andreasek. Horretarako, Albert O. Hirschman-en teoriaren ardatz nagusiak hartu ditu eta euskal gizartearen eredu izan daitezkeen jardunekin parekatu, modu enpirikoan. Hala, Hirschmanek planteatutako *irteera*, *ahotsa*, eta *leialtasuna* kontzeptuak erabili ditu.

Euskal gizarteko hiru entitate hartu ditu Andreasek bere azterlanerako: Arrantzaleen kofradia, baserritarren kofradia (gurean, barrantzaleak ere badira), eta soziedadea. Hiru entitate horiek gizarteak antolatzeko erabili dituen hiru modu erakusten dute. "Beste erakunde batzuk ere aztertu zitezkeen, adibidez eleiza, ikastolak... baina nik hiru horiek ikusi nituen egoki nire tesia defendatzeko. Hiru leiho gisa hartu ditut kultura herrikoia eta ekonomia morala nola gauzatzen diren ikusteko: elkarren artean lan egin eta bizitzea, solidaritatea, elkartrukea,... Modernizazioak ekarri zuen bitartekoak eta helburuak harremanetan jartzea, ekonomia moralean hori ez da horrela gertatzen, eta euskal gizartean ere hori ez zen horrela, oraindik ikus daitekeenez".

Hirschman-ek izateko, bizitzeko definitu zituen hiru moduak honela interpretatu ditu AndreasHess-ek bere azterlanean: Baserrian, ahotsa izanda eta leialtasuna izanda, irteera da hartu behar den bidea. Eta irteera hori asumitu egiten da. Irteera harreman-modu hori izan ez baliz, baserria...

Itsas-kofradian merkatu iraunkor bat bermatu zuen ahotsak, ahotsa ardatz hartutako lan egiteko moduak. Modernizazio-

Medikuntza naturala · tarot terapeutikoa
Bakarkako konstelazio familiarrak
Deba, Orio, Donostian...
IZARRE
685739355
aurrez aurreko kontsulta
telefono bidezko kontsulta

OKILA
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

ak merkatu lege berriak ekarri zituen, Europako araudi berriak...

Leialtasunaren kontzeptua soziedadean ikusten da. 150 urte inguru du erakunde honek, eta bizimodu urbanoaren eredua da. Bertan, giza-harremanen nolakoa ikus daiteke, erabakiak adostasunean hartu beharra, espazioa, jatekoa, denbora... partekatzea...

Formula majikoa, ahotsa dakarren eta irteera sahiesten duen leialtasuna.

Andreasen tesiaren ondorioa, horrenbestez, da igualitarismoa edo berdinzaletasuna ez dela jauntxoek, gobernatzaileak asmatutako kontzeptu bat, herriak bere antolamendurako egindako hautua baizik.

Zazpi bat urtetan jardun du liburua eraikitzen. Ingelesez idatzi du Suizako argitaletxe batean (800 aleko tirada), eta zenbait argitaletxerekin harremanetan dabil liburua euskaraz argitaratzeko aukerak aztertzen. Benetan gustatuko litzaioke Andreasi bere lana euskaraz argitaratzea, edo gazteleraz, kontua hemengo jendearengana heltzea ere bada eta. ✘

"YALE unibertsitatera noa sei hilerako; gero, beste unibertsitatera nator, Mutrikura"

Duela 25 urte etorri zinen Mutrikura. Nola ikusten duzu gure herria 25 urte barru?

Urbanizazio itzela izan da azken urteetan, eta eredu hori ez da iraunkorra. Urtetan eta urtean, betidanik ezugarri demografiko eta soziologiko batzuk izan dituen herria ezin da urte gutxiren buruan horrela aldatu. Zenbat eta etxe gehiago, orduan eta jende gehiago, herriaren izaera aldatuko lukeen jende andana ekartzeko modua.

Beste alde batetik, espazio publikoa gehiago zaindu behar delakoan nago bizitza publikoa suspertzeko. Azken urteetako obra ederrenetakoa Atxukaleko parkea izan da, jendeari espazio publikoaz gozatzeko gonbitea. Herri batean, herritarrak gogoan hartuta, espazio publikoa izan behar da garrantzitsuena.

Amaitzeko, arrantzaren gainbehera bizi izan dugu Mutrikun azken hamarkadetan. Arrantzaren etorkizunaz ezkorra naiz. Modu ekologikoena zen hemengo arrantzaleena, iraunkorrena, baina horrek ere kale egin du mundu modernizatu hoentan...

Nola ikusten gaituzu Munduan?

Shakespearek esaten zuen moduan, zainak moztu eta geuk ere odolazainetan. Esan nahi dut gauza komun asko dugula, unibertsalak, munduko biztanle guztiok, kultura guztiok. Horiekin batera, beste gauza asko partikularrak. baina Mutrikun unibertso txiki bat aurkitu dut, eta gustura nago horko kide izaten urtean egun batzuetan bederen.

25 urte eta gero, etxea Mutrikun...

Erdikokalen, eta oso pozik nago. Dublin-Bilbao bidaia ere oso erraza da gaur egun.... Komunean gauza asko dago bi herrien artean: herri txikiak, atlantiarrak, nazionalistak, katolikoak, kultura propioa, jan eta edana...

Epe motzean, ze asmo duzu?

Aurten urte sabatikoa hartu dut, eta New Yorketik ordu eta erdi iparraldera dagoen Yale unibertsitatera noa, Dublingo unibertsitateko beka baten bitartez inbestigazio lanak egitera. Urte erdiz Ameriketako unibertsitatean izango naiz, inbestigatzen, eta beste erdiz beste unibertsitatean izango naiz, Mutriku izenekoan.

Hori esanda, gogoratu digu Mutrikuk 800 urteko ospakizunetan ibili den urte honetan bete duela beste horrenbeste urte, 800, Cambridge-eko unibertsitateak, eta bata bezain unibertsitate iruditzen zaiola bestea. ✘

"Mutrikun aurkitu dut guztiok bilatzen dugun beste txoko hori, unibertso txiki bat



BERISTAIN
DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA
943 60 35 44

Gizonezkoen ileapaindegia
IMOTZ
Erdikokale, 34 - behea MUTRIKU Tel.: 943 60 41 62

BERTSO PAPER S

Laztan bat edo bi

Iñigo Andonegi Egurbide, 1994 urtea
X. edizioko 1. saria
Neurria: Berezia

1

Ene ilargi, zu zaitut nire
Amets beroen giltzarri
Sentimendurik biluzienak
Azaldu dizkizut sarri,
Hamaika kontu pottolo ere
Esan diogu elkarri,
Beraz ez zaitzake harri,
Zu oro begi-belarri,
Daukadanak esangarri:
Zoaz eta lo den maiteari,
Kontuz ez dadin itzarri.
Ostu laztan bat eta mesedez
Tolestu gabe ekarri. (bis)

2

Goiz batez "zakur" odolgaiztoek,
Harro dantzatuz polbora
Ezti zegien ametsa hautsiz
Bota etsipen zulora
Eta presoen jaki mingotsa
Eman zioten ahora,
Geroz irritik malkora,
Bakartasunean gora,
Dema maiteak denbora,
Urteterdi bat jada kartzelan
Euskal Herritik kanpora,
Nire ezpainek ez dezakete
Haen laztanik gogora. (bis)

3

Gure herriaren askatasuna
berreskuratzeko asmoz
Bulartsu ekin zion lanari
Zapaltzaileen aurka joz,
Botoz ez ezik, baliabide
Eraginkorrez apropos,
Orain mendekuak datoz
Tratu zeken eta gaiztoz
Pozak bustitzera malkoz,
Ez du dena den, ezerk ematen
On eginak bezain poz,
Eta ez dute irria zimel
Dakion lortu oraingoz. (bis)

4

Nabari zaio emakumezko
Gorputz etzanean barna
Funtzionari mairuen azken
Araketaren aztarna,
Ikaraz ditu bular zuriak,
Dardar sabelpe otxana
Oi, gorrotoaren lana
Zergatik hola profana?
Tentuz gordean zuana?
Hona, ilargi, haren ziegara
Zoazenerako plana,
Zeure zilarrez estal ezazu
Betikoz nire laztana. (bis)

5

Bihotzarekin bat egin arte
Itzalen eskutik segi,
Sakonenean itxaropen printz
Eztigarri bat eskegi,
Mila borroka ezinezkotan
Beti lantsu, beti eri
Gauez behintzat lasai bedi,
Ez bada eske gehiegi,
Ametsen sehaskan geldi,
Ikuturikan ez egin arren
Hainbat amets on gazteri,
Egun berria lehertu baino lehen
Bihur bailitezke egi. (bis)

6

Oraindik ere malkoren bat lo
Izan lezake begian,
Gure herriko trantze odoltsu
Jazo berrien harian,
Burkideen min guztiak bizi
Ditu bere haragian,
Horregatik aspaldian,
Malkoak ditu abian
Bi ninien atarian,
Baina zuretzat, ene ilargi,
Xukaezinak agian,
Ihintz esnatuko dira guztiak
Askatasun loraldian. (bis)

7

Badator goiza, aurki hartuko
Gaitu denok bere baitan,
Zoaz zu eta askatasuna
Geratuko da zelatan,
Berandu gabe begiratu zer
Darabilen maiteak han,
Negarraren erresakan,
Ea jotzen nauen faltan
Infernu español hartan,
Miserableki gauzkaten arren
Hesiaz alde banatan,
Zuri eskerrak ibil gintezke
Araindik laztanik lantan. (bis)

8

Oilartu behar zaizu ekia,
Bihar arte ba, ilargi,
Berriz maiteaz mintzatzekotan
Ez nauzu izango nagi,
Bere begiez dakust mundua
Urdin, dotore, oskarbi...
Bera dut nire pozkari,
Baina esateko argi,
Oroz gain dugu gudari,
Nire zerua da bere lurra,
Bion zerua Euskadi,
Beraz batekin ez dugu ezer
Eta ekarri laztan bi. (bis)

SARIKETAK 25 URTE

Kukuak noiz zuzen joko

Iñigo Andonegi Egurbide, 1995 urtea
X. edizioko 1. saria
Neurria: Berezia. Bederatzi puntukoa.

1

Dozenerdi bat bertsotan zehar
ausardia gorriz txor-txor,
sentimenduen korapila
deslotuz baldi banator,
oi gure haurtxo jaio gabea
zeuri bakarrik zaizu zor,
gure irrika basati eta
ahalmenik ezaren alor,
zure aitamak izan gintezkeen
aldiz ez gaituzu inor,
luzaz gauzkazu sor-ta-lor
zure etorreraz mozkor,
baina maitasun honi zuk nonbait
erizten diozu koxkor,
eta darraizu gure ametsei
ateak itxiz entzungor.

2

Udaberriak dira hautatu
genuela ezkontzea
eta urratu zure pozean
erromeria luzea,
probatu dugu izarazpiko
jolas ezti ta hezea,
garo arteko maitaldi eta
hondartzako ohantzea,
ezinezkoa bihurtu zaigu
zuri arnasik sortzea,
errazago da haizea
sarean harrapatzea,
dena den, gure bihotzean zut
daukazu zeure etxea,
baldin bazatoz zabal-zabalik
izango duzu atea.

3

Jainkoa lagun, kukuak ez du
betiere oker joko,
hona ba zenbait hitz lagungarri
jaio zaitezenerako:
"Lur" izeneko planetan aurki
zenitzake herri franko,
tartean gure Euskal Herria
ez dena, ez, ezer asko,
non txoko txiki txukun bat dugun
zure sehaskarentzako,
ustez gutxiko delako
ez ibili malkoz malko,
lurrean ez da geure neurriko
zerurik inorentzako,
zorionez zuk izango duzu
kulunka goxorik nahiko.

4

Ez badiozu malko atzetik
begiratzeari uzten,
zail samarra da herri txiki hau
zein handia den ikusten,
zure asabak kea denetik
bizi izan dira hemen,
golde ta arraun, eguneroko
ogi-puxka irabazten,
auzoko herri gandorzaleen
banderei aurre ematen,
neketan baina pozarren
etxejaun izatearren,
askatasuna da izan ere
ondasun denetan lehenen,
ez zaitez zeure, nahiz eta xume,
sehaskaz lotsatu, arren!

5

Bide bidean sehaskatikan
haurtzaro plazetara,
ahoan gozo lehertuko zaizu
lehenengo aldiz euskara,
hura ostuta erdaldun egin
zaitzaten, haurtxo, ez laga,
onez onean edo indarrez
errespetarazi, bada,
zeren izena eta izana
damaizkizuna bera da,
herria gorputza da ba,
hizkuntza honen taupada,
euskaldun eta libre ez ezik
zu zeu izango bazara,
hizkuntza eta herria, biak,
biltzazu zeure baitara.

6

Aurrekoez gain badira beste
galderabide estuak,
ibili ahala zeuk emateko
zeure erantzun mutuak,
zer dira zakil harroak eta
zer, alu profanatuak,
ta zeintzuk gari meta gaineko
txorien kantu santuak,
edota hainbat haur gosekilen
erru madarikatuak...
bakarrik zure patuak
argi litzake aipuak,
besterik gabe, jaso itzazu
nahi zaitugunon muxuak,
bihotz-zabalik geratzen gara
noiz zuzen joko kukuak.

KANTU ZAHARRAK MUTRIKUN
LANA LASTER ENTZUNGAI

Azken ikutuak ematen ari dira Mutrikuko Kanta Zaharren Proiektuko kideak laister kalean izango den KD bikoitzari eta Kantuen liburuxkari. Lanean hasi zirenetik ibilbide luzea egin dute: kantuak jaso, aukeratu, grabatu, dotoretu eta bukaerako ikutuak zaindu. Hau guztia Pedro Arreitunandiak, proiektu hontako kideak kontatu digu.

Dagoeneko urtebete pasatu da proiektu hau gauzatzen hasi zinetenetik. Nola izan da edo zein pausu eman dituzue hasiera hartatik gaur arte?

Bueno, hasieran pixkat kokatu beharra izan genuen: taldea osatu, gauza hauek nola egin behar diren ikasi, eta gutxika-gutxika pausoak ematen hasi ginen kantu hauek ezagutu ahal zituen jendearengan joaz. Bidean elkarrizketak egin ditugu, soziedade giroan jendea bildu, kamera eta mikrofonoak biztu, eta grabatzen hasi ginen. Gero material guztia lantzen Andoni Basterretxea izan dugu, teknikari bikaina.

Nola sortu zen proiektu hau, zein izan zen abiapuntua?

Abiapuntua sarea izan zen: Atxukale.com-etik jasotako eskaera izan zen. Lierni Otamendi Arrieta gurekin harremanetan jarri zen. Amaren familia mutrikuarra zuen: Amona Mutxurrenekua (Lekube), eta hau esaten zigun: *"Gabonetan kantatzeko ohitura dugu, eta, aurten ere horretarako asmoa dugunez, kantu-sorta bat biltzen ari naiz, etxean gehien gustatzen zaizkigun abestiekin. Baduzue Mutrikuko kanten bildumarik? Besterik ez bada ere, Hiru aeroplanoren sorta bidal diezadakezue?"*.

Ideia hau buruan izan genuen, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoa 2.0 deialdia atera zuenean, pentsatu genuen une egokia zela proiektua aurrera eramateko. Beraz, Saturran Guraso Elkartearen izenean eskaera aurkeztu genuen, eta onartua izan zen. Gero proiektua gauzatzeko herri mailan talde zabal bat sortu genuen.

Kantuez gain, izan al dezue beste zerbait jasotzeko asmorik?

Hasiera baten ez, egia esan gure helburua kantuak ziren, baina bidean bai aurkitu ditugula beste altxor batzuk. Kantu zaharrak lortzeko, hasiera baten ez genekien nora jo, eta adineko jendea elkarrizketatzea erabaki genuen. Aukera aprobetxatuz, kantuez gain beraien gazte denborako gauzei buruz ere galdetu genien, eta pasadizo eta gertaera oso politak kontatu zizkiguten. Kuriosoa, gu kantu bila joan, eta poltsan bueltan beste altxor batzuk jaso. Jaso genituen pasarteak publikatu egin behar zirela argi genuen, gure herriko kulturaren ezaugarriak dira eta ezin dira kajoi baten izkutuan egon. Horregatik, Udalak Eibarko Badihardugu Euskera Elkartearekin duen hitzarmena aprobetxatuz, eduki hauek http://www.ahotsak.com/mutriku/ web gunean publikatzen ari dira. Oraindik denak ez daude, baina pixkanaka hor agertzen joango dira.

Bete al dira hasieran zenituzten asmoak, ala denborarekin gauzak aldatzen joan dira?

Asmoak bete dira bai, eta oso gustura gaude egindako lanarekin. Lana guk uste baino handiagoa izan da, ordu dexente behar izan ditugu, eta eskerrak eman behar dizkiegu gure familiakoei gurekin izan duten pazientziagatik.

Aldatu ere aldatu dira. Gure proiektuak "Mutrikuko kantu zaharrak" izena dauka, baina aterako dugun emaitzak "Kantu zaharrak Mutrikun" izenburua eramango du. Izan ere, aurkitu dugun kantu askok Mutrikun dute jatorria, baina beste kasu batzuetan ezin esan, bada, Mutrikun sortuak direnik. Bigarren kasu honetan, bere jatorria mutrikuarra ez izan arren, badakigu kanta horiek orain dela 50 urte Mutrikun kantatzen zirela, beraz, diskan sartzea erabaki dugu. Hau dela eta, izenburua aldatu egin diogu.

Herritarren aldetik zer nolako erantzuna jaso duzue?

Primerakoa, ezin da besterik esan. Elkarrizketak egiten hasi ginenean jendeak etxeko ateak zabaldu eta beraien gazte/ume denborako bizipenak kontatu zizkigun. Gero, kantuak grabatzeko jendea prest agertu zen: Mañelak, eskabetxan aritutako andrak, musika eskolako umeak, Anaiarte Biltokiko abesbatza, Mutxurtarrak, herriko kuadrilak, Txairo bikotea..., denak prest eta gogoz aritu dira, eta hau azpimarratzekoa da. Kontuan izan behar da proiektu honetan 100 bat lagunek hartu dutela parte, eta bakoitzaren aportazioak lagundu egin dio proiektuari.

Kontaguzu herriko zein taldek edo zeintzuek hartu duten parte proiektuaren gauzatzean.

Kantatzen aritu direnak lehen aipatu ditut, baina horiez aparte, proiektuaren taldean jende gehiago aritu da, seguru norbait ahaztu zaidala, baina hemen zerrenda bat; Pertsonak: Andoni Basterretxea, Garbiñe Garagarza, Nerea Arrizabalaga, Aintzane Basterretxea, Aitzol Naberan, Mari Jose Orbegozo, Josefina Lekube, eta ni neu. Ondokoek ere laguntza eskaini digute: Joseba Palenzuela, Iñigo Andonegi, Asier Sarasua, Arku-Gain Elkartea, Kai-Gain Elkartea, Txoko-Eder Elkartea. Iñigo Andonegik egin digu proiektuaren lan grafikoa.

"Geroztik ari nauzu auts zaharrak astintzen gure aiton amonen ipuiak jasotzen"

Esan beharra dago herriko jendeari esker aurrera eraman duzuela proiektu hau; beraz, esan al genezake mutrikuarren nahia eta ilusioa izan dela?
Izugarria izan da jendeak grabazioetan erakutsi duen gogoa eta ilusioa. Bat aipatzeko, ikustekoa zen adibidez eskabetxeko kantak grabatzen ari ginala Lore "Paletas"ek nolako ilusioa zuen. Beste bat, Mutxurtarren familiak (ama buru zutela) nolako kantu politak eskaini zizkiguten.

Gure arbasoen hauts zarrak astintzeak, zer suposatu du zuentzat edo, kasu honetan, zuretzat?
Egin beharreko zeozer zen. Gaur egun eskolan umeak Euskal Herriko historia ikasten dute, eta hori ondo dago, baina "tokian tokikoa", hau da, gure herriaren historiaren zatitxo bat berreskuratzeko aukera izan dugu. Adibidez, jende gutxik jakingo du baporak nola joaten ziren itxasora gure gurasoen garaian. Patroiak pitxa batekin erlojua paparrean kateatu, izarrei begiratu, eta itxasora. Ez GPS, ez radarrik, ez ezer. Horrelako historioak grabatzeko aukera izan dugu proiektu honen baitan.

Orain momentuan nola aurkitzen zarete?
Ba, epez kanpo. Gure asmoa hau guztia Malenetarako bukatuta izatea zen, baina guk uste baino lan gehiago izan da eta oraindik bukatzeko dugu. Hori bai, Santo Tomasetan seguru kalean egongo dala.

Azken ikutu hauek, ustez baino nekezago?
Bai, kalitatezko produktua atera nahi dugu, eta horrek lana eskatzen du. Posible zen lehenago ateratzea, baina kalitatea ez zen berdina izango, eta pentsatzen dugu jendeak egin duen ahalegina egin eta gero, merezi duela, pixkat atzeratu arren, produktua ahalik eta hoberen ateratzea.

Zuen asmoa proiektuaren aurkezpena egitea da, ezta? Zer dakar proiektu honek eta zein da zuen helburua proiektu hau aurkeztu eta zabaltzean?
Aurrez esan dugun bezela, argi dugu herriko altxorrak berreskuratzen ari garela, eta herrikoak direnez, herriarenak izan behar dira. Proiektuaren emaitza nagusia KD bikoitza izango da, gutxi gora behera 42 kanturekin.

Denok dakigu musika diskak kopiatzea ez dela "legala", hau da, Copyright delakoa dela eta ezin ditugula kopiak egin. Guk kasu honetan lizentzia desberdin bat aukeratu dugu gure lanarentzat: "Creative Commons BY-SA" delakoa (http://tinyurl.com/creativecommons). Laburbilduz, "Creative Commos BY-SA" jartzeak esan nahi du edozeinek baimen guztiak dituela guk sortutako materiala kopiatzeko eta beste lan batzuetan erabiltzeko. Hau da, KDaren kopiak lasai egin ditzakezu, eta bertan dagoen musika lasai erabili dezakezu nahi dezun moduan. Jartzen den baldintza bakarra, hauxe: lan hau beste lan bat egiteko erabiltzen baduzu, bigarren lan horrek ere lizentzia berdina izan behar du, eta jatorrizkoa nondik datorren aipatu behar duzu.

Beraz, laister kantu hauetaz gozatzeko aukera izango dugu, ezta?
Bai, ea lanak behingoz bukatzen ditugun eta herriak gozatzeko aukera duen! ✘

.....ZORION AGURRAK.....

OXEL

Ongi etorri gure artera! Gurasuei ere, Zorionak! T.I.N.A.

JOSU

Hilaren 5ean 5 urte bete duzulako, Zorionak eta muxu handi bat gure mutil haundiari! Etxeko guztion partez, Zorionak!

IARE

Irailaren 29an gure etxeko txipristiñek urte berria beteko du. Zorionak berari! Zorionak lare etxeko danon partez!

NIKANOR

Zorionak, Ondarruko eta Mutrikuko familiko guztion partez, batez ere Maddi alabaren partez!

ERREALA

100 urte badira zerbait eta ZORIONAK mutrikuar errealzale guztioi!

MERTXE

Urte berri bat eta gazteago! Hori txoillua! Zorionak Bebe! Leire eta Eneko.

OIHANA

Zorionak gure etxeko neska politari. Abuztuaren 27an 8 urte bete duzulako. Luz, Loren, Koldo, Aitzol eta etxekoen partez.

YANI

Gure alabak zortzi urte bete duenez, Ama eta aitaren partez, Zorionak!

MARA

Zorionak etxeko printzesari irailaren 12an 3 urte handi bete dituelako. Muxu asko familia osoaren partez. Aitatxo, Amatxo eta Yuma.

MADDI eta JOKIN

Maddik abuztuaren 6an 3 urte eta Jokinek irailaren 13an urtebete bete dituztenez, zorionak eta muxu handi bat etxeko danon partez.

AITZOL

Zorionak gure etxeko futbolistari, abuztuaren 24an 4 urte bete duzulako. Ama, aita eta Koldoren partez.

LIHER

Zorionak amatxo eta bihotz-bihotzez eskerrik asko Lihertxo txikia ezagutzeko aukera emotearren. Muxu potolo bat nire bi izartxoendako. Mila esker!!

GAROA

Zorionak Garoa, zeure urtebetetzia den urriaren lauan. Amonak

ITZIAR

Zorionak Itzi! Aspalditxo izan zen zure eguna, baina zuri ere zorionak, akordatzen garela ikusteko! Patons!

MARKEL eta AITOR

Irailaren 10ean Aitorrek 2 urte, irailaren 28ean berriz Markelek 5, ZORIONAK! Ondo-ondo pasau zuen urtebetetze eguna! Muxu haundi bana Santa Elenako familixian partez.

ROSARIO

Ez gaitxun ahaztu! Zorionak beste urte pilo baterako hire jaiotza eguna den urriaren 4an. Ahizpak.

NEREA

Hauxe da gure neskia! Dauaneko hemeretzi urte! Baiña zelako parranderia erten dezun...! Zorionak danon partez!

AINARA

Zorionak gure etxeko artistari, irailaren 17an 8 urte bete zenituelako. Noizko kuadro berria? Matxo haundi bat etxeko danon partez, batez ere Lur, Xua eta Iñaki.

zer da? non dago?

baten bat zoriondu nahi? orri honetan duzu aukera

bidali argazki bat eta testua
kalaputxi@topagunea.com
edo Luardoko sotoko buzoian

Argazki Zaharrak

Kalbaixo egunian, 1940 urte aldera

Jesusa Ibarzabal "Ametza", Adela Sustaeta, Maritxu Liona, Manuela Illarramendi eta beste lagun bat Kalbaixon, dantza sueltuan. Txistularixak, Joakin Txiki eta Elordi, atzean, bistan hankak bakarrik.

Jesusa Ibarzabal "Ametza"k lagatako argazkixa.

Maistrianeko eskolakuak, 1964 urtian, Beheko plazako kioskuan

Maria Isabel Uranga, Mari Karmen Flores, Maite Illarramendi, Nerea Beitia, Lurdes Lezertua, Rosarito Egaña, Mari Mar Eizagirre, Lurdes Flores, Andone Ojanguren, Rosa Mari Larrea, Rosita Arostegi, eta Nerea Illarramendi.

zuen elkarteak antolatutako ekintzen berri herri osoari eman nahi badiozue, zuen esku duzue

KALAPUTXI

jarri gurekin harremanetan!
635748393 edo
kalaputxi@topagunea.com

MENDI IRTEERAK'2009

BURUMENDI, ARTIBAI, AURRERA, LUMENTZA, ETA BURDIN KURUTZ MENDI ELKARTEEK ANTOLATUTA

- **Urriak 25**

Toloño mendilerroa (1271 m., Araba)
(Bazkaria Labastidako bodega baten)

- **Azaroak 15**

Kortakogain – Aumategi (1191 m., Elgeako mendilerroa) – Ozaeta

- **Abenduak 13**

Deba inguruak.

ODOLA EMATEKO EGUNAK'2009

Mutrikuko odol emaleen elkarteak antolatuta

urriak 10 eta abenduak 19

Egun guztiak barixaku, arratsaldeko 18.00etatik aurrera

udazkeneko EKITALDIAK

IRAILA

irailaren 30era arte

ERAKUSKETA:
Mutrikuren jatorria, itsasoa ardatz duen historia bat
Zabiel kultur etxean

irailak 27, domeka

XII. HERRI KROSA
Goiko plazan hasita, 10,30etatik aurrera.

SAN JERONIMUAK

irailak 30, eguaztena

11:00etan **Meza**
17:00etan umeentzako **jolasak**, pottokak, zezenak...
20:30 **Erromeria** Laihotzekin

urriak 2, barixakua

Gabaz, **kontzertua**
Lain, Nahixan, eta Giza Proiektuak

urriak 3, zapatua

Baserritarren eguna
Txotx afaria
Imuntzo eta Belokirekin **erromeria**
Goizaldean, **txokolatea** eta **berakatz zopa**

urriak 4, domeka

11:00etan **Meza**
Eguerdian, **Auzo bazkaria**

URRIA

MENDI ZIKLOA
Zabielen, 19:30etan

urriak 1, eguena

Himalaiara familiarekin
Josu Bereziarturen eskutik

urriak 8, eguena

Gu, Pirinioetatik Denalira
Patricia Viscarreten eskutik

urriak 15, eguena

Trekina Indonesian
Mila Gallastegi eta Asier Aranzabalen eskutik

JAZZ ASTEBURUA

urriak 24, zapatua

KARMA KINTET
19:00etan Zabielen

urriak 25, domeka

ORGANIKS
19:00etan Zabielen

urriak 28, eguaztena

Dokumentala:
Cubako zine pobrea
19:00etan Zabielen

XXV. OKELAR anaiak BERTSOPAPER SARIKETA

aurtengo deialdia

GAZTEAK

...16 urte arte
...Gutxienez 3 bertso edo 6 kopla
...Lehenengo saria: Txapela, 90 € eta oparia
...Bigarren saria: 50 € eta oparia
...Saritu gabeko lehenengo mutrikuarra: 30 € eta oparia.

HELDUAK

...17 urtetik aurrera
...Gutxienez 6 bertso
...Lehenengo saria: Txapela + 450 €
...Bigarren saria: 250 €
...Saritu gabeko lehenengo mutrikuarra: 100 €

BALDINTZAK

...Bertsoak jatorrizkoak, argitaratu gabeak eta inon saritu gabeak izango dira....Bertsoen neurria, doinua eta gaia librea izango da... ...Lanak izenordez sinatuko dira...Bertsoekin batera izenordea agerian duen gutunazal baten barruan egilearen izenorde, izen, helbide, adina eta telefonoa bidaliko dira. Bertso bakoitzari bere ordena zenbakia jarriko zaio...Bertso sorta bakoitzaren doinua jartzea komeni da...Posta elektronikoz bidali nahi duenak bi artxibo bidaliko ditu doc (WORD) edo odt (WRITER) formatuan. Artxibo batean bertso sorta bera eta ezizena idatziko ditu eta bestean bere datu pertsonalak: izenorde, izen, helbide, adina eta telefonoa...Bertso sorta batek ez du sari bat baino gehiago jasoko...Epaimahaiak hala iritziz gero sariren bat eman gabe utzi daiteke.

LANAK BIDALTZEKO HELBIDEAK

Posta elektronikoz: mutrikube@gmail.com

EPEA urriaren 12a baino lehen

Posta arruntez:
OKELAR bertso paper sariketa- Mutrikuko Bertso Eskola
Luardo etxea (Barrenkalea, z/g)
20830 Mutriku (Gipuzkoa / EUSKAL HERRIA)

SARI BANAKETA Mutrikuko Santo Tomas ferian banatuko dira sariak.

ANTOLATZAILEA: Mutrikuko Bertso Eskola

Vitoria Optika

AUDIOLOGIA ZENTROA

- Osasun sailak homologatutako audiologia zentroa
- Audioprotesista egunero dago zentroan
- Audiometriak doan, kabina intsonorizatuan
- Teknologia berrienak erabiltzen ditugu
- Etxean ere atenditzen dugu (Graduazioak eta Audiometriak)

Tel. 94 613 41 38
e-mail: mvitoria@cnoo.es

Iparkale, 1
ONDARROA

MUTRIKUKO HAURRESKOLA

PLAZAK DAUDE

> Haurreskola Publikoa 0-2 urteko haurrentzat
> 11 hilabetetan 11 orduz zabalik
> Hileko kuotak ordaintzeko diru laguntzak (bekak)
> Plaza kopuru mugatua

ZABALIK MATRIKULA ALDIA ZABALIK MATRIKULA

> Telefonoa: 943 60 41 19
> E-maila: mutriku.mutriku@haurreskolak.net
(Goizeko Izarra Ikastolaren barruan gaude)

MUTRIKUKO UDALA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO